

Ordena z.
Nº orden

HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS

Erdi Mailako Zikloak / Ciclos de Grado Medio

Hizkuntzalaritza / Lingüística

Euskara eta Literatura / Lengua Vasca y Literatura

NAN / DNI		Izena / Nombre	
Abizenak / Apellidos			
Sinadura / Firma			

2022ko apirila / abril de 2022

A. Irakurri testua eta erantzun galdera hauei.

**PERTSONA ETA TXAKURREN ARTEKO HARREMANA GURASO ETA SEME-
ALABEN ANTZEKOA DA**



Etxeko txakurrek bertan bizi diren pertsonekin harreman estuak garatu ditzakete, horrenbeste ezen ama eta seme-alaben arteko harremanaren antzekoa litzatekeela. Hungariako Biologia Institutuak gauzatutako ikerketa batek animalia hauek jabeen hizkeraren bitartez jasotako estimuluak aztertu dituzte eta aurkitu dute txakurren erreakzioak haurrak amaren ahotsaren aurrean erreakzionatzen duenaren antzekoak direla.

Nerolmage aldizkarian argitaratutako ikerketak jabeen eta txakurren artean antzekotasun emozionalak frogatu ditu. Artikuluak deskribatzen du txakurrek euren zaintzailea maitatzeaz gain, berekiko lotura garatzen dutela. Haurrak, euren bizitzako lehenengo etapan, euren amekin, izaten dituzten erreakzioen oso antzekoak dira txakurrenak.

Hainbat datu konduktualen eta neuro irudien analisiaren bitartez, ikertzaileek frogatu dute zaintzailearen hitzek txakurren sentsibilitatearekin harreman dutela. Lehendabizi txakurren eta gizakien arteko lotura aztertu zuten, egoera arraroetan jarriz aztertzaileak, test baten bitartez. Ondoren, zaintzailea joan egin zen eta hau joatean nola erreakzionatzen zuten txakurren behatu zen.



Ondoren, txakurren garuneko jarduera neurtu zen erresonantzia magnetiko bidez. Ariketa honetan txakurren zaintzaileak eta pertsona ezagunek hitz onak esan zizkieten animalari, baita hitz neutroak ere. Espero bezala, gizakiekin lotuagoa zeuden txakurren garunentzat zaintzaileen ahotsa entzutea sari bat jasotzea bezala zen. Honek esan nahi du, bere etxeko kideen ahotsak entzuteko gai direla txakurrak.

“Loturaren oinarritzko funtzioa indibidua (haurra, txakurra) zaintzailearen mendeko izatea da. Ikerketa honen emaitzak frogatu dute, haurrentzat bezala, txakurrentzat zaintzailearekin dituzten elkarrekintza positiboez gain, honen ahots neutroa entzutea ere atsegina dela”, azaldu du Marta Gacsi-ek, ikerketaren autore nagusiak.

Mota honetako aurkikuntzek erakusten dute txakur pertsona eta ama seme-alaba harremana uste zena baino antzekoagoak direla.

Testua: Jaione Dragdrommer @hellehellei GAZTEZULO

- 1. Zer topatu du Hungariako Biologia Institutuak? (0,25 p.)**
- 2. Zer begiratu zuten ikertzaileek txakurraren zaintzailea joan ondoren? (0,25 p.)**
- 3. Txakurren garuneko jarduera neurtzeko, ikertzaileek erresonantzia magnetikoa erabiltzen zuten. Zertan datza proba hau? (0,25 p.)**



4. Zeintzuk dira ikasketa honen emaitzak? (0,25 p.)

5. Zein da testuaren gaia? (p.1)

6. Azaldu esaldi honen esanahia: "Txakur pertsona eta ama seme-alaba harremana antzekoak dira." (p.1)

7. Bilatu testuan (p.1)

- **Bi izen:**
- **Izenlagun bat:**
- **Izenondo bat:**
- **Aditz jokatu bat:**

**8. Idatzi hurrengo hitzen sinonimoak: (p. 1)**

- Harreman:
- Gauzatu:
- Behatu:
- Gai izan:

B. IDAZLANA. Hautatu ezazu aukera hauetako bat. (5 p.)

B.1. Desagertzeko zorian dauden animaliei buruzko testu bat idatzi behar duzu, gutxienez, 150 hitz izan behar ditu.

Galdera hauek erantzun ditzakezu:

- Zeintzuk dira desagertzeko zorian dauden animaliak?
- Desagerpen horien arduradunak gizakiak gara?
- Zer egin dezake gure gizarteak?
- Beharrezkoak dira animaliak gure bizitzarako?

B.2. Animaliak etxean izateari buruzko testu bat idatzi behar duzu, gutxienez, 150 hitz izan behar ditu.

Galdera hauek erantzun ditzakezu:

- Zer pentsatzen duzu animaliak etxean izateko ohiturei buruz?
- Zeintzuk dira alde onak eta alde txarrak?
- Animalia guztiak dira aproposak etxean izateko?
- Zer pentsatzen duzu animalien salerosketari buruz?

**Kontuan izan:**

- Testuaren zirriborroa egin ideiak antolatzeko.
- Sarrera egin gaia kokatzeko.
- Ideiak paragrafotan antolatu.
- Birpasatu ondo akats ortografikoak, puntuazioa eta idazkera.
- Saiatu egitura eta lexiko aberastasuna zaintzen.

(Tarte txuri hau zirriborroa egiteko erabil dezakezu)

